
Concierto Kiosko
Kontzertua

Martxoak 4 Marzo – 19.30
Palacio Euskalduna Jauregia

**Orquesta Sinfónica del Conservatorio
Juan Crisóstomo de Arriaga, Bilbao**
Maite Aurrekoetxea Viloria zuzendaritza / dirección

LUDWIG VAN BEETHOVEN (1770 – 1827)

Egmont, opus 84
Obertura

SERGÉI PROKÓFIEV (1891 – 1953)

Capuletos y Montescos (Romeo y Julieta)
mold./arr. E.J Siennicki

CLAUDE-MICHEL SCHÖNBERG (1874 – 1951)


Los miserables (selección)
Mold. / arr. B.Lowden

OTTO M. SCHWARZ (1967 -)

La vuelta al mundo en 80 días

Musika · Música

Notak & Letrak
Martxoak 3·4·5 Marzo
Bilbao – 2023



Concierto Kiosko Kontzertua

Ludwig van Beethoven – Egmont obertura, Opus 84

Egmont, Opus 84, musika intzidentaleko hamar piezaren multzoa da, Ludwig van Beethovenek 1810ean konposatua, Johann Wolfgang von Goethek 1788an idatzitako tragedia, izen berekoa, antzezteko. Obertura da pieza horietan ezagunena.

Goetheren antzezlanak Egmonteko kondearen bizitza kontatzen du (1522-1568). Espainiar Herbehereetako heroi nazionala, jenerala, estatuko gizona eta Urrezko Ardi-larruaren Ordenako zalduna izan zen. Hirugarren Albako dukeari aurre egin zion eta, azkenean, atxilotu, heriotzara kondenatu eta burua moztu zioten. Testuaren amaieran, protagonistak, hil aurretik, independentziaren alde eta Espainiako monarkiak bere herrialdean eragiten zuen zapalkuntzaren aurka borrokatzeko bere ideala aldarrikatzen du.

Musika Beethovenek konposatu zuen 1809ko urritik 1810eko ekainera bitartean. Vienan interpretatu zuten lehen aldiz, 1810eko ekainaren 15ean. Musika deskribatzailea da; haren bidez, herri batek zapalkuntzaren aurrean duen sufrimendua irudikatu nahi izan zuen konpositoreak. Askatasunaren ereserkiarekin amaitzen da konposizioa; herriaren askapenaren ikurra da ereserki hori.

Sergei Prokofiev – Kapuletarrak eta montagutarrak (Romeo eta Julieta)

William Shakespeareren beste lan batzuen antzera, hau ere, Veronako zoritzarreko maitaleen istorio tragikoa, inspirazio-iturria izan da beste diziplina batzuetako sortzaileentzat, hala nola musikakoentzat.

Romeo eta Julieta balleta 1935 eta 1936 artean idatzi zuen Prokofievek, eta Shakespeareren dramaren errealizazio musikalik onena dela uste da. Literatura-lanean bezala, Prokofievek maitasunaren eta heriotzaren filosofian oinarritutako soinu-diskurtso bat lortzen du, lirismo zirraragarri eta bufoikeria apur batez hornitua.

Prokofievek Errenazimentuaren espiritua atzeman zuen, eta pertsonaia polemikoei bizia eman zien: Lorenzo fraideari, Mercuciori, Tybaldori, Romeori eta Julietari, zeinak, bere heriotzarekin, gizakien nortasun askearen ideala adierazten baitu. Pertsonaia guztiak oso adierazkorrak eta sinesgarriak dira.

Claude-Michel Schönberg – Miserableak obrako pieza-sorta

Miserableak edo Les Misérables osorik kantatutako musikal bat da, Victor Hugoren izen bereko eleberrian oinarritua. Claude-Michel Schönbergekin idatzi zuen musika, eta jatorrizko letrak Alain Boublil-ek eta Jean-Marc Natel-ek idatzi zituzten. Ikuskizuna 1980an estreinatu zen Parisen, eta, handik bost urtera, Londresera eraman zuten. Partiturak Tony saria irabazi zuen eta oso abesti ezagunak hartzen ditu barne; besteak beste, I Dreamed a Dream, On My Own, One Day More, Bring Him Home eta Do You Hear the People Sing? Frantzian XIX. mendean hasieran girotua, musikalak Jean Valjeanen istorioa kontatzen du. Indar handiko konbiktu ohia da Valjean, erredentzioaren bila dabilena, ogia lapurtzeagatik espetxean hemeretzi urte eman ondoren. Iraganaren erruz lan ondradua lortzerik ez duela, Valjeanek gotzain bihozbera baten errukiari esker aurkitzen du bere bidea. Urteetan Javert inspektorearen jazarpen gupidagabea jasan ondoren, baldintzapeko askatasuna hautsi eta nortasun faltsu batekin bizitza berri bati ekiten dio Valjeanek, gotzainak bultzatuta. Bidean, zenbait ikasle gaztek, beren idealen aldeko borrokan, Parisko kaleetan piztutako iraultzan nahasiko dira Valjean eta beste pertsonaia batzuk.

Otto M. Schwarz – Munduari bira 80 egunetan

Otto M. Schwarzen lan hau Jules Vernek 1873an argitaratutako eleberrri ospetsuan dago oinarrituta. Phileas Fogg ingelesaren istorioa kontatzen du; lagunekin apustu egin ondoren, munduari bira egitera joaten da. Gau horretan bertan, Rigodon morroiarekin Frantziara abiatzen da, Marseillesa ereserkiaren konpasak entzuten diren bitartean. Europatik, beste ereserki nazional batzuk entzunda, Egiptora iristen dira; oboe-solo batek herrialde horretako kulturaren murgilduko gaitu.

Bidaia aurrera egiten du, Indiara. Han, trenbideak eten egiten dira, eta elefantean jarraitu behar dute. Une hori adierazteko, tronboien glissandoak erabili zituen konpositoreak; obraren unerik adierazgarrienetako bat da.


Hong Kongetik, Txinatik eta Japoniatik Estatu Batuetara jotzen dute, ekialdeko kultura horietako itsasontzi tipiko batean. Bidaiaren zati horretan, sordina duen tronpeta baten soloa eta flautak entzuten dira, lurralde horietako soinu adierazgarria sortzeko. Estatu Batuetan bufalo-taldeak, indiarren erasoak eta New Yorkeko musikal ezagunetako musika ere entzun daitezke. New Yorketik Liverpoolera abiatzen dira, lurruntzi batean. Liverpoolera iritsita, atxilo hartzen dute, baina erregabea dela frogatzen da. Apustua, ordea, galduta dagoela dirudi. Big Ben erlojuak musika-eleberri honen amaierako kanpai-hotsak ematen

Musika · Música

Notak & Letrak

Martxoak 3 · 4 · 5 Marzo

Bilbao – 2023



Ludwig van Beethoven – Obertura “Egmont”, Opus 84

Egmont, Opus 84, es el nombre de un conjunto de diez piezas de música incidental compuestas por Ludwig van Beethoven en 1810 para la representación de la tragedia del mismo nombre escrita por Johann Wolfgang von Goethe en 1788. La pieza más conocida de ellas es la obertura.

La obra teatral de Goethe trata sobre la vida del héroe nacional de Países Bajos Españoles Conde de Egmont (1522-1568) general, hombre de estado y caballero de la Orden del Toisón de Oro y su enfrentamiento con Fernando Álvarez de Toledo, tercer Duque de Alba, hasta que finalmente fue arrestado, condenado a muerte y decapitado. El texto finaliza con la muerte del protagonista que proclama su ideal de lucha por la independencia y contra la opresión que representaba para su país la monarquía española.

La música fue compuesta por Beethoven entre octubre de 1809 y junio de 1810. Se interpretó por vez primera en Viena el 15 de junio de 1810. Se trata de música descriptiva con la que el compositor quiere representar el sufrimiento de un pueblo ante la opresión. Culmina con el himno a la libertad que simboliza la liberación del pueblo.

Sergei Prokofiev – Capuletos y Montescos (“Romeo y Julieta”)

Como otras obras de William Shakespeare, la trágica historia de los infortunados amantes de Verona ha sido fuente de inspiración para creadores de otras disciplinas, entre ellas la música.

El ballet Romeo y Julieta fue escrito entre 1935 y 1936, y es considerado la mejor realización musical del drama de W. Shakespeare. Como en la obra literaria, Prokofiev logra un discurso sonoro desde la filosofía del amor y la muerte, lleno de emocionante lirismo y una porción de bufonería.

Prokofiev captura el espíritu del Renacimiento dando vida a los controvertidos personajes, ya el Fraile Lorenzo, Mercucio, Tybaldo, Romeo y Julieta, la que con su muerte afirma el ideal de la personalidad humana libre; todos altamente expresivos y convincentes.

Claude-Michel Schönberg – Selección de “ Los Miserables”

Los Miserables o Les Misérables es un musical completamente cantado basado en la novela homónima de Victor Hugo, con música de Claude-Michel Schönberg y letras originales en francés de Alain Boublil y Jean-Marc Natel. El espectáculo se estrenó en París y cinco años después dio el salto a Londres. Su partitura ganadora del Tony incluye canciones tan conocidas como “I Dreamed a Dream”, “On My Own”, “One Day More”, “Bring Him Home” o “Do You Hear the People Sing?”.

Ambientado en la Francia de principios del siglo XIX, el musical cuenta la historia de Jean Valjean, un exconvicto de extraordinaria fuerza que busca la redención tras cumplir diecinueve años en prisión por haber robado una hogaza de pan. Incapaz de conseguir un trabajo honrado por culpa de su pasado, Valjean encuentra su camino gracias a la composición de un bondadoso obispo, quien le inspira para romper su libertad condicional y comenzar una nueva vida bajo una identidad falsa, mientras sufre la implacable persecución del inspector Javert a través de los años. Por el camino, Valjean y una serie de personajes se verán envueltos en medio de una revolución, en la que un grupo de jóvenes estudiantes luchan por sus ideales en las calles de París.

Otto M. Schwarz – “La vuelta al mundo en 80 días”

Esta obra de Otto M. Schwarz se basa en la famosa novela de Julio Verne publicada en 1873. Cuenta la historia del inglés Phileas Fogg, quien se retira a dar la vuelta al mundo después de una apuesta con sus amigos. En esa misma noche parte junto a su criado Rigodón a Francia, escuchándose compases de La Marsellesa y a través de Europa, donde se oirán otros himnos nacionales llega a Egipto, con un solo de oboe que nos sumerge en esta cultura.

El viaje sigue a India, donde las líneas de trenes se interrumpen y han que continuar el viaje con elefante, representado en la obra con los glissandos de los trombones, uno de los momentos más representativos de ella.

La ruta continúa desde Hong Kong, China y Japón, a Estados Unidos en un barco típico de estas culturas orientales, en el que se escucha el solo de trompeta con sordina y flautas también muy representativo de estas tierras. En estados Unidos se pueden oír incluso manadas de búfalos, ataques de los indios y música de los famosos musicales de Nueva York, en el cual se embarcan rumbo a Liverpool toman un barco de vapor, donde es detenido y se demuestra que es inocente, pero la apuesta parece estar perdida, el Big Ben dará las campanadas del final de esta novela musical. ¿Pero... habrá perdido la apuesta?